



## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak aurrera egiteko birziklatutako plastikoak behar ditugu. Kostaldean ibiltzen den MATER itsasontziak, itsasotik plastikoak biltzen ditu, horregatik, itsasontziarekin akordio batera iritsiko gara beraiek plastiko horiek bildu eta guri emateko. MATER itsasontzia plastikorik gabe geratu ezkeru, zabortegetatik bilduko genituzke edota eskola eta puntu batzuk jarriko genituzke supermerkatu kanpoan bertan plastikoak uzteko. Ondoren, plastiko horiek gure Birto enpresara eramango ditugu eta bertan gure dendako produktuak egiten hasiko gara. Produktu guztiak prest daudenean, Birto dendara eramango ditugu eta saltzen jarriko ditugu.

Almazenean minimo bat edukiko dugu produktuak eskatzen dituztenean gabe ez gelditzeko. Bezeroek produktu bat eskatzen dutenean, lehendabizi produktua almazenean dagoen begiratuko dugu. Produktu hori eduki ezkeru bezeroari zuzenean salduko diogu presentzialki gure dendan edo online gure webgunean. Produktua ez badugu edo edozer dela eta produzitu egin behar badugu, denbora tarte bat itxaron beharko du bezeroak, baina dendan edo eta webgunean erosteko aukera izango du.

Gure produktuei publizitatea egin ahal izateko, gure sare sozialetara edo web orrian edukiko ditugu argazki zein bideoak eta gure berri edukitzeko edo gurekin harremanetan jartzeko, web gunean gure telefono zenbakia eta gmaila daude.

Bezeroak, produktuak online erosteko aukera ere izango dute. Produktu hori beraiek jarritako helbidera iristeko, banatzaile bat kontratatuko dugunez, berak eramango ditu bakoitzaren etxera.